

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### RAMON BAJO Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe publikoa

#### INFORMAZIO OROKORRA

#### DATA:

1	<b>Izena</b>	RAMON BAJO Haur eta Lehen Hezkuntza Ikastetxe publikoa
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Hezkuntza, irakaskuntza
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefona</b>	650953558
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	<a href="http://ramonbajoikastetxeablog.blogspot.com.es/">http://ramonbajoikastetxeablog.blogspot.com.es/</a>

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIKAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	Auzo-eskola bat eraiki nahi izan da bi oinarri hauekin: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskalduntzea</li> <li>- eta auzoan dauden bizilagun guztien inklusioa.</li> </ul>
2	<b>Praktikaren azalpenaren laburpena</b>	<p>Gasteiz eremu erdaldunean kokatutako hiriburua da. Euskarak oso presentzia txikia du kalean. Hala ere, 80. hamarkadatik hona, etxetik erdaldunak diren guraso gehienek euren seme-alabentzat euskaraz murgilketa erabatekoa egiten duen hezkuntza eredia (D eredia) aukeratzen dute. Migratzaile kopurua, 2002. urtetik hona modu mailakatuan igo da, ia %10eko kopurura igo arte.</p> <p>Bertakoek egiten duten kontrara, migratzaileek seme-alabentzat eskola publikoa eta batez ere euskaraz murgilketa partziala (B eredia) edo gaztelaniaz ikasten den eredia (A) aukeratzen dute. Erabaki horren atzean arrazoi konplexuak daude eta erantzukizuna eragile askorena da. Honela, ez da bultzatzen migratzaileen euskalduntzea eta hiritar guztien elkarbizitza, zenbait eskola publiko eskolak ghetto bihurtzen baitira.</p> <p>Ramon Bajo Gasteizko Alde zaharrean kokatutako ikastetxe publikoa da, non urte luzetan A eredian irakatsi den. Goian azaldu dugunari jarraiki, 2002. urtetik bereziki etorkinen seme-alabak baino ez ziren matrikulatzen eskola honetan eta auzoan bizi ziren bertako jatorria zuten gurasoek (lehen hizkuntza euskara nahiz gaztelera izan) D eredia eskaintzen zen inguruko auzoko ikastetxeetara eramaten zituzten euren seme-alabak. 2006an ikastetxe hau D eredura aldatzeko prozesua sustatu zuten auzoko guraso euskaldun batzuek, baina irakasleekin eta jatorri etorkina zuten gurasoekin elkarrekin erabakiorra izan zen euskalduntze prozesuan. Egun, auzoko eskola honetan D eredian irakasten da eta ghetto izateari</p>

		<p>utzi dio eskolak.</p> <p>Nahiz eta badugun gure historian aurrekaririk, kulturantzitasun egoeran euskararen sustapena erronka berria eta handia dugu. Bertako gurasoen inplikazioa erabakiorra da euskara erdigunean egotea berma dadin, beti ere, besteek dakarten kultura eta hizkuntzak kontutan hartuta.</p>
3	<b>Aurrekariak</b> (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	<p>Alde zaharreko eskolan ez zegoen D eredu, baina guraso elkarterik ez zegoelako, ez irakasleek edo etorkinek ez zutelako nahi. Beraz, 2006 urte inguru arte "gheto" bat zen, eta eskusio sozilaren gune bat. Guraso euskaldunek (eta maiz baita ere erdaldunek) guraso elkarteak sortu eta eskolaren euskalduntzea sustatzea EAE zabal gertatu den fenomeno da, baina Gasteiz bezalako eremu erdaldunetan jatorri etorkineko ikasleak besterik ez duten eskoletan egun hau oso zaila da gertatzea. Besteak beste, guraso etorkinek eremu erdaldunetan euskararen garrantzia eta gure hezkuntz sistemaren funtzionamenduz oso informazio gutxi, eta zenbaitetan okerra ere bai, jasotzen baitute. Horrez gain, kontutan izan behar da oro har Euskal Herriko egoera soziolinguistikoko konplexua eta anitza ulertzea urte luzeetako prozesua izan daitekeela migratzaileentzat.</p>
4	<b>Helburuak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Euskalduntzen duen eskola lortzea auzoan.</li><li>- Euskararen aldeko jarrerak sustatzea bai ikasleen eta bai gurasoen artean.</li><li>- Inklusioa den eskola izatea auzoan.</li><li>- Bizikidetzak sustatzea.</li></ul>
5	<b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- Familia guztietan eragin nahi da. Batetik, bertako familiengan irekitasun gehiago lortu nahi da migratzaileak diren familiekin, eta alderantziz. Elkarrekin egotea hastapena da, baina elkarrekin eragitea areago doan helburua.</li><li>- Eskolako guraso elkarteak sustatu du Goian aisialdi taldea sortzea.</li><li>- Auzoko kirol instalazioak eta parkeak elkar ezagutzen duten umez bete dira, auzoan elkarrekin ikasten dutelako.</li><li>- Nahiz eta gaztelaren erabilera eta presentzia oso handia izan, jatorri etorkina duten haurrek euskaraz egiten duten helduak dituzte erreferentzia gisa. Euskararekiko bertako erdaldunek baino jarrera hobea erakusten dituzte maiz.</li></ul>
6	<b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>- "Basarte" guraso elkarteak.</li><li>- Eskola bera osatzen duen zuzendaritza taldea.</li><li>- "Goian" aisialdi taldea</li><li>- "Auzoan Hazi Hezi Bizi" plataforma (desegina).</li><li>- Gasteizko Gaztetxea.</li><li>- Landatxo gizarte etxeko kale hezitzaileak.</li><li>- Auzokideak</li><li>- E.a.</li></ul>
7	<b>Inplementazio-epea</b>	<p>Asko aurreratu da hastapeneko egoeratik, baina amaiera gabeko proiektua da, izan ere, Gasteizen egiten den guztia gutxi da euskalduntzeari begira batetik, eta bestetik, zenbait giza talderen eskusio soziala oso gogorra izan da eta izaten jarraitzen du. Kulturantzitasunean euskara erdigunean jartzea beharbada betirako lana izango dugu.</p>

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	<b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	Gasteizko Alde Zaharreko auzo guztia. Bestalde, egun Gasteizen gertatzen ari den migratzaileen eskusio egoeran eskola honek egin duen lana eredarria dela uste dugu.
9	<b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Eskolako baliabideak eta guraso elkarteak jartzen dituenak.
10	<b>Lortutako emaitzak</b>	Auzoan euskalduntzen duen eskola inklusiboa lortzea, jatorri ezberdinekoen artean bizikidetzat hobea lortuz.
11	<b>Dokumentazioa erreferentziako materiala</b>	<p>Sareko dokumentalak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>GURASOAK: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=uWE5HvszHtY">https://www.youtube.com/watch?v=uWE5HvszHtY</a></li> <li>“INTEGRAZIOARAKO EREDUA” MAHAI INGURUA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=TF4LYrwANwQ">https://www.youtube.com/watch?v=TF4LYrwANwQ</a></li> <li>ESKOLAKO ABESTIA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=sgoR3l6r7tU">https://www.youtube.com/watch?v=sgoR3l6r7tU</a></li> <li>IRAKASLE ESKOLAREKIN DOKUMENTALA: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=lpl3S4_RnaQ">https://www.youtube.com/watch?v=lpl3S4_RnaQ</a></li> <li>EKINTZAK: <a href="https://www.youtube.com/watch?v=ojf9fxo_lqw">https://www.youtube.com/watch?v=ojf9fxo_lqw</a>, <a href="https://www.youtube.com/watch?v=SJD26uwTJ3w">https://www.youtube.com/watch?v=SJD26uwTJ3w</a>.</li> </ul>

### BIBLIOGRAFIA ERREFERENTZIAK

- Barquin (2008). “Immigratioa eta euskara: gogoetarako zenbait gai”. *Jakin*, 165.2.3., 75-97.
- Barquin & Ruiz Bikandi (2009): “Hizkuntzen kudeaketa eskolan”, *Tantak*, 21 (1), 7-21.
- Diaz de Gereñu & Garcia Azkoaga (2016). “Narraciones orales en vasco y español de niños inmigrantes: aprendiendo dos lenguas nuevas. Basque and Spanish oral narratives of immigrant children: learning two new languages”, *Lengua y Migración* 8-1, 29-49.
- Eta hemendik aurrera zer? (2016): HPS Hizkuntza Politika Sailburuordetza. Euskararen Aholku Batzordea, Euskara 21 Batzordea. Kontsulta: [http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/noticia/eta\\_hemendik/eu\\_def/index.shtml](http://www.euskara.euskadi.eus/r59-738/eu/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/index.shtml)
- Eusko Jaurlaritza (2003-2005). Inmigratioari buruzko I. euskal plana. Kontsulta: [http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/2497/eu\\_2211/adjuntos/PLANVASCOINMIGRACIONE.pdf](http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/2497/eu_2211/adjuntos/PLANVASCOINMIGRACIONE.pdf)
- Eusko Jaurlaritza (2011-13): III Plan Inmigracion Ciudadania Convivencia Intercultural (2011-2013) [http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes\\_estrategicos\\_inmigracio/es\\_planes/adjuntos/III%20Plan%20Inmigracion%20Ciudadania%20Convivencia%20Intercultural.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_estrategicos_inmigracio/es_planes/adjuntos/III%20Plan%20Inmigracion%20Ciudadania%20Convivencia%20Intercultural.pdf)
- Eusko Jaurlaritza (2012-2016), 23\_Plan Vasco Inclusion Activa-2012-2016: [http://www.redinclusion-social.es/wp-content/uploads/2013/01/23\\_PVIA-2012-2016.pdf](http://www.redinclusion-social.es/wp-content/uploads/2013/01/23_PVIA-2012-2016.pdf)
- Garaio, B. (2014). “Euskara eta euskal kulturarekiko jarrera Gasteizko eskola batean : Gasteizko Francisco de Vitoria BHI ikastetxeko ikasleekin egindako ikerketa kualitatiboa // Basque language and attitude towards Basque culture in a school in Vitoria. Qualitative research done with Francisco de Vitoria’s High School students”, *Sancho El sabio*, 37, 277-307.
- Gasteizko udala-Kultur Ka2a* (2014). *Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena*.

		<ul style="list-style-type: none"> <li>Gasteizko Udala, 2014, ESTUDIO DIAGNÓSTICO SOBRE EL FENÓMENO MIGRATORIO EN VITORIA-GASTEIZ. Kontsulta: <a href="http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/27/34/62734.pdf">http://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/http/contenidosEstaticos/adjuntos/es/27/34/62734.pdf</a>.</li> <li>Manifestua (2016). EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO MANIFESTUA VITORIA-GASTEIZEN. Denon artean, Arabako Guraso elkartearen Federazioa.</li> <li>Manterola &amp; Lardizabal (2009). “Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskadunaren eragina”, Euskera 54, 3, 1511-1535.</li> <li>Ruiz De Arkate, O. (2015a). “Guetización escolar e inmigración en Vitoria-Gasteiz.” Haur hezkuntza gradu amaierako lana (Salamanca Unibertsitatea). Eskuizkribua.</li> <li>Ruiz De Arkate, O. (2015b). “Zer muga topatzen dituzte Gasteizko alde zaharrek gurasoek haien seme-alabak Ramón Bajon eskolatzeko?”, HEZKUNTZA TESTUINGURU MULTIKULTURAL ETA ELEANITZETAN (HUHEZI) Masterreko lana. Eskuizkribua.</li> </ul>
12	<b>Aurkezpen bideoa</b>	Eskolako abestia: “Mundu berri bat”, <a href="https://www.youtube.com/watch?v=sgoR3l6r7tU">https://www.youtube.com/watch?v=sgoR3l6r7tU</a>
13	<b>Intereseko informazio gehigarriak</b>	Eskolako blogean aurki daiteke: <a href="http://ramonbajoikastetxeablog.blogspot.com.es/">http://ramonbajoikastetxeablog.blogspot.com.es/</a> Auzoa biziberritzeko, euskalduntzeko eta zaintzeko herri eta auzo oso garrantzitsua da eskolaren ingurua zaintzeko. Adibiderako: “Zaharraz harro” urtero antolatzen den jaialdia, herri ekimenak bultzatua.